

OINARRIAK

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ENERGIA TEKNIKARIA HAUTATZEKO ALDI BATERAKO PROGRAMA BIDEZ

1.- Deialdiaren xedea:

Otsailaren 21eko energia jasangarritasun 4/2019 legeak¹ eta transizio-energetiko zein klima aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 legeek² finkatu dituzten betebeharrak eta helburuak, Udal Elkartearen lurralde-esparruan, pixkanaka bete daitezzen, egokia da aldi baterako programa baten bidez, bitarteko funtzionario bat hautatzea.

Lege horietako helburuak ezargarri dira bai Administrazio publikoei bai sektore pribatuari.

Urola Kostako Udal Elkartearen Estatutuak bosgarren artikuluan bi eskuduntza hauek finkatu ditu berariaz:

- Prestakuntza programak
- Enpresei laguntzeko zerbitzuak

Aurreko bi horietan oinarrituz, energia jasangarritasun legeak eta trantsizio energetiko zein klima aldaketa legeak eskatutako betebeharren inguruan formazioa eta laguntza eskaini nahi zaie bai Urola Kostako Udal Elkarteako kide diren Udalei bai bere lurralde esparruaren baitan dauden enpresei eta eragileei.

Batetik, 4/2019 legeak, bosgarren artikuluan, xedatutako helburuak izango dira jomuga aldi baterako programa honen bidez. Besteak beste, energia era efizienteagoan erabiltzea, energia aurrezteak, energia berriztagarriak sustatzea, mugikortasun jasangarriagoa, erregai alternatiboak aurkitzea, berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea, energia-faktura jaistea, energia berriztagarrien eta efizientzia handitzen duten tekniken eta teknologien ikerketa, beste administrazio batzuekin eta partikularrekin hitzarmenak, energia gehiago aurrezteak eta efizientzia energetiko hobea izateak nahiz energia berriztagarriak erabiltzeak zer onura dakartzaten zabaltzea, energiaren kudeaketa lokalagoa eta komunitarioagoa sustatzea.

¹ <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/02/1901087e.pdf>

² <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2400901e.pdf>

Bestetik, 1/2024 legeak araututako helburuak betetzeko ahalegina gauzatu nahi da aldi baterako programa honen bidez. Hain zuzen ere, 2050. urtean lor dadin Euskadin klima-neutraltasuna, 2030erako berotegi efektuko gasak % 45 murrizteko, deskarbonizazio-prozesua sektore sozioekonomiko guztietan, aldaketa sustatzea digitalizazioa bultzatuz eta irtenbide teknologiko berritzaileak hartuz. Bereziki, 15 artikuluan aipatutako ibilbide-orriak, estrategiak eta “toki-erakundeen klima- eta energia-planak” bideratu nahi dira.

2.- Kontratazioaren lege oinarria eta justifikazioa

Lege ikuspegitik, abenduaren 1eko 11/2022 legeak, 28.1.e) artikuluan “ aldi baterako programak “ aurreikusi ditu, hauek kontuan hartuta:

1.– *Euskal administrazio publikoen gobernu-organismoek aldi baterako programen exekuzioa onartu ahal izango dute; betiere, programa horiei lotutako zereginak ezin badituzte bete dauden langileekin, eta ohiko ez diren jarduerak badira edo Administrazioaren jarduera berri ez-egiturazkoen abiada.*

2.– *Oro har, aldi baterako programen iraupena ez da hiru urte baino gehiago izango, eta, hala behar eta justifikatuz gero, gehienez urte betez luza daiteke. Luzapenerako, baina, aldez aurretik beharko dira hauek: aldeko txostena, dagokion administrazioan ogasunaren eta funtzio publikoaren eskumena duten sail edo organismoek emana, eta langileen ordezkari entzunaldia eskaintzea. Behin berrogeita zortzi hilabeteko epea gaindituta, ezin izango da beste programa bat onartu, baldin eta funtzio berberak edo antzekoak baditu.*

Hautaketa-prozedurari dagokionez, bitarteko izaera duenez izendapenak, era arin eta azkar batean gauzatu behar da, 11/2022 legeak, 77.1 artikuluan, aurreikusi duenez,

Justifikazioaren ikuspegitik, hainbat arrazoi eta interes publiko daude programa hau abiatzeko. Alde batetik, eskualdea osatzen duten herrietan, eskualdean eta gizartean bere osotasunean, energiaren kudeaketa egokia egiteko lanketak martxan jartzea sustatzen ari dira hainbat erakunde. Horri erantzuna emateko, norbanako zein enpresa eta udalerrriak egoera kaxkarrean geratu dira eta baliabide zein aholkularitzaren beharra garbi ikusten da. Beste alde batetik, erakunde, eragile eta norbanako ezberdinei erantzukizun berriak ezartzen dizkieten lege berriak onartu dira, lehen puntuan aipatu denez.

Gainera, energiaren erabilerari buruzko herritarren kontzientziazioa nabarmen handitu da azken urteotan, eta, horren ondorioz, aintzat hartu behar diren eskaerak ugaritu egin dira eta kudeaketa premia areagotu egin da. Hori horrela, energiari zuzenki lotutako eskaerak, lanak eta zerbitzuak asko hazi dira, gaur egun dagoen lan taldearekin aurrera eramatea ezinezkoa delarik.

Azkenik, Foru Aldunditik, eskualdeetan sustapen lanak egiten ari dira profil honetako langileak izateko zerbitzu oso bat emateko aukera izateko, eta horretarako baliabide anitz jartzen ari da. Horren adibide da, sinatu berri den FA-JA-2024 0112 hitzarmena. Honen arabera, Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, 2024. urtean, Urola Kostako Udal Elkarteari 55.000€-ko dirulaguntza bat bideratzen dio ekimen ezberdinak egiteko, horietatik 30.000€ pertsonal gasturako direlarik. (A/24-01338 sarreran dago)

3.- Hautagaiek bete beharreko ezinbesteko baldintzak

- Administrazio publikoan lan egiteko baldintza orokorrak eskatuko dira.
- Ikasketak: Lizentziatura, gradua, ingeniaritza, orohar. Energiarekin, energia berritzaileekin, jasangarritasunarekin eta klima aldaketarekin zerikusia duten gradudunek edo masterra egin dutenek izango dute lehentasuna, oinarri hauen balorazio irizpidetan finkatutako moduan.
- Euskara: 3. hizkuntz eskakizuna edo C1 egiaztagiria, gutxienez, egiaztatuta.
- B1 gida baimena

4.- Bete beharreko lanpostuaren eta eskaintzaren ezaugarriak:

Lanpostua: Energia teknikaria.

Eskala: Administrazio Berezia

Sailkapen taldea: A1

Destino osagarria: 21

Osagarri espezifiko: 901,76.-euro/hilero

Ordainsaria: 2.860,2.- euro/ hilero; urtero (14 ordainketa): 40.042.-euro

Ordutegia: Normalean astelehenetik ostiralera, 7:30etatik 15:00etara. Noizean behin lanaldi zatitua zerbitzuaren beharreatatik, bileraren bat egin behar bada.

Lanaldia: %100

Eskaintzen den izendapena: aldi baterako programa betetzeko izendapena.

Iraupena: Urtebete, luzagarria urtez urte, hiru urte arte.

Probaldia: hautatuak 3 hilabeteko probaldia gainditu beharko du (11/2022 legearen 77.2 artikuluari jarraiki), ezinbestekoa izanik eginkizunetara egokitzea parametro hauen arabera: egindako lanetan azaldutako eraginkortasun profesionala eta, bereziki, zerbitzuarekiko jarrera; arduradunekiko harremanak eta ardura; lankidetzeta eta elkarlana; errendimendua eta erantzukizuna; egoerez jabetzea, emozio-oreka eta moldagarritasuna.

Horiek guztiak, 11/2022 legearen 76.7 artikulua ezarritako moduan, zehatz-mehatz deskribatu eta nabarmen behagarriak diren jokabideekin alderatuta balioetsiko ditu Garapen Agentziako arduradunak-txosten baten bitartez. Txosten hori, hautaketa-organo teknikoari bidali beharko dio, ontzat eman dezan.



5.- Eginkizun nagusiak:

A. LAN LERROA: LEGEDIAREN BETE BEHARRAK ADITZERA EMATEA

Energia alorrean, aparteko ekintzak bideratu eta jarraipena eman (legearen betebeharrerako, dirulaguntza edo programa batek sustatutakoa, etab.)

- i. 4/2019 eta 1/2024 legeak bete
- ii. Energia eta klima aldaketa inguruko dirulaguntzak

B. LAN LERROA: ENPRESEN LEHIAKORTASUNA AREAGOTZEKO, ENPRESEI ETA ERAGILEEI ZUZENDURIKO EKINTZAK BULTZATZEA

Energia planeko eta GFA hitzarmenean zehaztutako ekintzak bideratu eta jarraipena eman

- i. Eskualdeko enpresei energia eraginkortasunaren inguruko aholkularitza zerbitzua eskaintzea
- ii. Eskualdeko enpresen arteko lankidetzak proiektuak sustatzea (komunitate energetikoak, etab.)
- iii. Energiari buruzko online informazio-zerbitzua bizirik mantentzea.
- iv. Energia alorreko prestakuntza saioak zabaltzea
- v. Eragile ekonomikoei energia eta klima aldaketaren inguruan sentsibilizazio edukiak zabaltzea
- vi. Energia mahai publiko-pribatua dinamizatzea.
- vii. Urola Kostako energia planari erantzuna eman eta adierazleen bidez monitorizatu

C. LAN LERROA: ADMINISTRAZIO EREDUGARRI BATERANTZ BIDERATZEA

a. UROLA KOSTA UDAL ELKARTEA: Urola Kosta Udal Elkarteko auditoria energetikoan zehaztutako ekintzak bideratu eta jarraipena eman.

- i. 2030an, energia kontsumoen %30 murrizketa lortzeko ekimenak proposatu eta bideratzea.
- ii. Energia berriztagarriak bultzatzeko proposamenak egin eta lizitazioak bideratzea. Esaterako, 2024an, soldadura zentroko fotovoltaiakoa.
- iii. Ziurtagiri energetikoen berritzea, eta auditoria energetikoak eskatzen duten 2 urteko maiztasunaren jarraipena eta kudeaketa egitea.

b. UDALAK

- i. Udalei zuzeneko zerbitzua eskaini
 1. Teknikarien lantaldea
 2. Energiaren lantalde instituzionala (teknikari eta politikariak)
 3. SIE plataformaren inguruan laguntza zerbitzua



- ii. Udalei zuzeneko zerbitzua eskaini (etorkizunera begira – zehaztu beharrekoa)
 1. Udaletxe bakoitzaren tokiko energia eta klima plana azertu, bakoitzaren egoera ezagutzeko. (proposatutakoa)
 2. Udalei energia eta klima aldaketaren inguruko legeen berri ematea eta hauen eskakizunak modu egokian txertatzen direla bermatzea (proposatutakoa)
 3. Udalek energia eta klima aldaketaren inguruan burutu beharreko ekintzen inguruan aholkularitza eskaintzea. Azpikontrataturako enpresak, pleguak, etab. (proposatutakoa)

D. LAN LERROA: ALIANTZAK BULTZATZEA

- a. Udalsarea2030 (Bileretan parte hartu, e-mugi, BEG isuriak, etab.)
- b. Kanpoko eta nazioarteko lankidetzaproiektuetan parte hartzea.
- c. Erakundearen ordezkariak foroetan, bileretan.

6.- Hautaketa prozedura

Legezko oinarriak eta baldintzak

11/2022 legearen 77.1 artikulua jasotako printzipio hauek bermatuko dira hautaketa honetan: berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna, publikotasuna eta lehia askea.

11/2022 legearen 79.2 artikuluari jarraituz honakoak bete dira hautaketa hau bideratzeko:

- a) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna, independentzia eta diskrezionalitate teknikoa.
- b) Hizkuntza eskakizuna euskaraz
- c) Izangaien gaitasuna eta egokitasuna neurtzeko tresnen pertinentzia.
- d) Hautaketa-prozesuetako edukien eta deitutako plazetan bete beharreko zereginen arteko adostasuna.
- e) Hautaketa-prozesuen bizkortasuna
- f) Hautaketa-prozesuan hizkuntza ofizialetatik edozein erabili ahal izateko bermea.
- g) Enplegu publikora iristeko berdintasun-printzipioa.
- h) Gainerako izangaiak dituzten baldintza beretan parte hartzea desgaitasunen bat duten pertsonen.

11/2022 legearen 77.5 artikuluari helduz, LANBIDE- Euskal enplegu zerbitzuan argitaratuko da lan eskaintza honen iragarkia.

Baldintzak betetzen dituen pertsona orok izen eman dezake eskaintza honetan, modu hauetakoren batean:



1. LANBIDE bidez
2. Urola Kostako web orriko erregistro elektronikoa bidez edo paperean aurrez aurre Urola Kostako Udal Elkarteko egoitzan (Zarauzko Abendaño Poligonoko, Urdaneta bidea, 6)

Horretarako, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1.- LANBIDEren CV (NAN, titulazioa, euskararen ziurtagiria, gida baimena eta lan esperientzia egiaztatzen dituena).

2.- LANBIDEren CV ez bada aurkezten, honakoa:

- NAN agiria
- Titulazioa (gradua, lizentziatura)
- Euskaren egiaztagiria (C1 edo 3 HE)
- CV laburtu bat
- Bizitza-laboralaren ziurtagiria eta lan eskarmentuari buruzko enpresen ziurtagiriak.

Hautaketa metodoa:

11/2022 legearen 80.2.artikuluko a), g), h) eta k) atalak aintzat izanik burutuko da hautaketa.

Horrela, ahozko proba edo elkarrizketa bidez gauzatuko da. Grabatua izango da. **40 minutuko** iraupena izango du gehienez.

Elkarrizketan hautagaiak bere CVan jarritakoa azaldu beharko du. Ahozko proba honek hiru zati nagusi izango ditu. Lehen bi zatietako bat gutxienez euskaraz erantzun edo azaldu beharko du hautagaiak, edo aukeran, nahi izanez gero, bi zatiak.

- Lehen zatian, 10 minutuz gehienez, hautagaiak bere burua aurkeztu beharko du, eta bere ikasketa ibilbidea azaldu beharko du.
- Bigarren zatian, 10 minutuz gehienez, hautagaiak bere lan ibilbidea zein izan den adierazi beharko du eta zein lantokitan eta zein zeregin egin dituen zehatz mehatz deskribatuko du. Halaber, gaiaren inguruan egindako ikerketak esplikatuko ditu, halakorik balego.
- Hirugarren zatian, 20 minutuz, gehienez, ahozko ezagutza-proba burutuko da. Hautaketa-organu-teknikoak zenbait gai galdetuko dizkio, oinarri honetako eranskinean ageri den gaitegiari buruz.

Hirugarren zati honetan, galderak euskaraz egingo dira, eta galderen erdiak, gutxienez, euskaraz erantzun beharko dira, euskaraz gai teknikoei buruz jarduteko gaitasuna frogatzeko.

Hautaketa-organo teknikoak, argibideak eskatzeko edota zalantzak argitzeko galderak euskaraz egingo ditu, ulertzen baita, C1 ezagutza maila derrigorrezkoa den lanpostu honetan, nahikoa gaitasun izango duela ulertzeko.

Elkarrizketa egiteko eguna eta ordua emailez jakinaraziko zaie, eskatutako dokumentazio osoa aurkeztu eta baldintzak betetzen dituzten hautagaiei.

Balorazio-irizpideak (100 puntu, gehienez).

Hautagaiaren jarrera, heldutasuna, ezagutza eta esperientzia baloratuko da ondorengo irizpideen arabera:

1. Bere burua aurkeztean erakutsitako koherentzia eta ordena, eta bere ikasketa-ibilbidean zehar ikasitakoa argi adierazteko gaitasuna. 10 puntu, gehienez.
2. Energia jasangarritasun eta klima aldaketa arloan, enpresei emandako zerbitzuak aholkulari gisa edota enpresetako edo Administrazio publikoetako langile-teknikari gisa egindako lanak, sakon eta ulertzeko moduan azaltzea. 20 puntu, gehienez.
3. Energia jasangarritasun eta klima aldaketa arloko gaietan egindako ikastaroak, lan edo ikerketak, halakorik balego, era ulerterrazean eta arin laburtzeko ahalmena. 10 puntu, gehienez.
4. Ahozko ezagutza-probako galderak ondo erantzutea: 40 puntu gehienez.
5. Energiarekin, energia berritzaileekin, jasangarritasunarekin eta klima aldaketarekin zerikusia duten gradua edo masterra egin izana, egiaztagiriaren ziurtagiria ekarriz gero: 10 puntu Gradua; 5 puntu Masterra.
6. Orohar, euskaraz lasai eta argi hitzegiteko gaitasuna, gutxienez, elkarrizketako lehen eta bigarren zatietako batean eta ahozko ezagutza probaren galderetan. 5 puntu.

Hautaketa-mahai edo organo teknikoa

Elkarrizketa, Udal Elkarteko garapen saileko arloburuak, prospekzio teknikariak eta Idazkari-kontuhartzaileak, edo honek izendatutako ordezkari batek, burutuko dute.

11/2022 legearen 81.10 artikulua arabera, epaimahaiaren edo hautaketa-organo teknikoaren erabakia loteslea izango da izendapenak egiteko eskumena duen organoarentzat, hots, Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakariarentzat.



Emaizak: hurrenkera eta lan-poltsa

Aurkeztutako hautagaien artean, hurrenkera bat jarriko da. Orotara, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko dira, eta partzialki, bigarren puntuan gutxienez 10 puntu eta laugarren puntuan, gutxienez, 20 puntu lortu beharko dira.

Gutxieneko puntuazio hori lortu duten hautagaiekin lan-poltsa bat eratuko da, energia eta klima aldaketa gaietarako aholkularitza lanak egiteko, interesa azal dezaketen beste enpresa edota Administrazio publikoentzat eskuragai egongo dena, hautagaiak horretarako berariaz baimena emanaz gero.

Gutxi gora-beherako egutegia:

- Izen emateko epea: 5 lan egun, iragarkia Urola Kostako Udal Elkartearen web orrian argitaratuz geroztik edo LANBIDEn iragarkia jarriz geroztik, bietan, azkena den egunaz geroztik.
- Izen emateko modua: LANBIDE bidez edota Urola Kostako Udal Elkarteko erregistroan
- Elkarrizketa egiteko epea: uztailaren lehen hamabostaldian zehar. Baldintzak bete dituen hautagai bakoitzari egun eta ordu zehatz baterako deialdia egingo zaio.
- Emaizak argitaratzeko gehienezko epea: azken elkarrizketa burutu eta handik 5 lan egun.
- Emaizak argitaratzeko modua: Urola Kostako Udal Elkartearen web orrian.

2024ko ekainaren 18an





ERANSKINA: GALDETEGIA

Ahozko ezagutza-proban honako gaiei buruzko galderak egingo dira.

1.- Otsailaren 21eko energia jasangarritasun 4/2019 legearen baitako artikulua hauek: 2,5,6,9,10,11,12,13,14,16,17,18,21,25,26,27,29,30,35,36,45,46 eta lehen xedapen gehigarria.

[1901087e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

2.- Klima neutraltasun- eta aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 legearen artikulua hauek: 1,2,4.2,5.1, 5.2, 5.3, 10.4, 15, 18, 21, 23,32,33, 34, 35, 44, 48, 54, 57, 59, 64, Bigarren xedapen gehigarria.

[2400901e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

3. -Administrazio publikoen prozedura administratibo erkidearen 39/2015 legeko artikulua hauek:

13,14,15,20,21,24,25,34,35,36,47,48,53,58,59,60,62,70,75,76,80,82,83,84,88,96,112,121, 122,123,124.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-10565>

4.- Sektore publikoko kontratuen 9/2017 legearen xedapen hauek: 1.1,2.4,12,13,14,15,16,17,35,37,39,61,62,65,66,74,76,86,87,89,92,99,100,101,102,116,118,122,124,126,132,145,146,149,153,157,158,159,202,204,205. Xedapen gehigarriak: 28,41; Azken xedapenak: 3, 14.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2017-12902>

5.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorraren artikulua hauek:

1,2.1,3.1,5.2,6,8.3,9.3,9.4,14,17,22,23,24,25,28.1,30,31.1,32.1,34.


<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-20977>

6.- Urola Kostako Udal Elkarteko energia planaren atal hauek:

<https://www.urolakosta.eus/eu/web/urolakosta-agentzia/energia-alorreko-informazio-gunea/urola-kostako-energia-plana>

- 8tik 9ra orrialdera (planaren irismena eta helburuak)
- 74tik 90ra orrialdera (Urola Kosta eskualdeko planaren ekintzak).



Sinatzailea	LEHENDAKARITZA-IDAZKARITZA	
Kodea	J 24/0098	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4PSC3.53ug	
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu		